LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2022KO EKAINAREN 2KOA, ZUMAIAKO ONDARE HISTORIKOKO, ARKITEKTONIKOKO ETA INGURUMEN-ONDAREKO FATXADAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN GAINEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO DENA, ZUMAIAKO ARRITOKIETA KALEA 20ko FATXADARI DAGOKIONEZ.

AURREKARIAK

- 1.- ARRITOKIETA KALEA 20ko JABEKIDEEN ELKARTEAK Zumaiaiko ARRITOKIETA KALEA 20an dagoen eraikineko fatxada konpontzeko eta balkoiak eta barandak berritzeko obra lizentzia eskatu zuen.
- 2.- Jabekideek aurkeztutako idazkiaren bidez, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren gaineko %95eko hobaria aplikatzeko eskatu zen, Zumaiaiko ARRITOKIETA KALEA 20ko fatxada konponduko delako.
- 3.- Udal zerbitzu teknikoaren txosten teknikoa hobaria aplikatzearen aldekoa da, fatxadako mantentze lanen 18.403,90 euroko egikaritze materialaren aurrekontuan oinarrituta.
- 4.- Ordenantza fiskalen berri eman da, dagokion IRIZPENA emateko.

IRIZPENA

Ondorioz, 2022KO EKAINAREN 2ko Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

Aide: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Alex Oliden (EHBildu)
Oier korta Esnal (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaiaiko ARRITOKIETA KALEA 20ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren %95eko hobaria aplikatzea onartzea, exekuzio materialaren aurrekontua (18.403,90 €) kontuan hartuta.

hobari honen eskaera ogasun batzordetik pasa ondoren, bozkatu egiten da emaitza honako delarik



Aldeko botoak: 14 boto (8 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaiako ARRITOKIETA KALEA 20ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzen da, exekuzio materialaren aurrekontua (18.403,90 €) kontuan hartuta.

3.1.4.- PROZEDURA IREKI ETA OHIKO IZAPIDETZE BIDEZ, ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEKO OBRA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITATZEA, BIDEZKO BADA.

LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2022KO EKAINAREN 17KOA, ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEKO.

AURREKARIAK

LEHENA.- Ikusita Zetabi Arkitektura Bulegoa S.L.P.k egindako ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA izena duen proiektua eta hori 2022ko martxoaren 30eko Osoko bilkuraren erabaki bidez onartu zela

BIGARRENA.- Ikusita Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumen sailak egin duen memoria aipatutako proiektuan jasotako obrak exekutatze beharra justifikatzen duena.

HIRUGARRENA. Adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak ikusita:

Kontratu-mota: OBRA-KONTRATUA Tipo de contrato: CONTRATO DE OBRAS	
Kontratuaren xedea: ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEA Objeto del contrato: EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REHABILITACIÓN DEL CONVENTO DE CARMELITAS DESCALZAS DE ZUMAI A	
Kontratazio-prozedura: IREKIA Procedimiento de contratación: ABIERTO	Izapidetze-mota: ARRUNTA Tipo de Tramitación: ORDINARIO
Kontratazio-erloto errekurso berezia jar daiteke: BAI Susceptible de recurso especial en materia de contratación: SÍ	
CPV kodea: 45000000-7 Eraikuntza-lanak Código CPV: 45000000-7 Trabajos de construcción	
Kontratuaren balio zenbatetsia: 4.202.654,21 € Valor estimado del contrato: 4.202.654,21 €	
Saillkapena: C taldea, 2 azpitaldea, kategoria 4 K taldea, 7 azpitaldea, kategoria 3 Clasificación: Grupo C, subgrupo 2, categoría 4 Grupo K, subgrupo 7, categoría 3	



Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua BEZ gabe: 4.202.654,21 € Presupuesto base de licitación IVA excluido: 4.202.654,21 €	BEZ (%21): 882.557,38 € IVA (%21): 882.557,38 €
Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua BEZ barne: 5.085.211,59 € Presupuesto base de licitación IVA incluido: 5.085.211,59 €	
Gauzatzeko epea: 20 HILABETE Duración de la ejecución: 20 MESES	

HIRUGARRENA.- Lotetan ez banatzeari eta baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostenak ikusita.

LAUGARRENA.- Ikusita kontu-hartzaitzako txostena, adierazten duena aurrekontuko baliabideekiko zenbatekoa den kontratazioak dakarren gastuaren ehunekoa.

BOSGARRENA.- Ikusita idazkaritzako txostena, adierazten duena jarraitu beharreko prozedura.

SEIGARRENA.- Horretarako landu diren Baldintza administratiboen agiria, Baldintza teknikoen agiria eta Eranskinak ikusita.

ZAZPIGARRENA.- Ikusita 2022ko ekainaren 3ko lurralde antolamenduaren batzordean kontratazio espedienteari buruzko informazioa eman zela.

ZORTZIGARRENA.- Ikusita Euskara saileko eta Berdintasun saileko txostenak.

BEDERATZIGARRENA.- Ikusita kontu-hartzaitzako txostena, adierazten duena dagokion kreditua dagoela.

LEGEDI APLIKAGARRIA

Legedi aplikagarria honako hau izango da:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, 63, 99tik 102ra, 116, 117, 122, 124 eta 131tik 159ra bitarteko artikuluetan eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 72. artikulua. (817/2009 Errege Dekretua indarrean sartzean indarrean jarraitu duten artikulua)

Azaldutakoa ikusita, espedienteak Legediak ezarritako izapideei jarraitu diela irizten da; bestalde, espedientea onartzea Osoko bilkurari dagokio Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

IRIZPENA



Ondorioz, 2022ko ekainaren 17ko Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

Alde: Iñaki Agirrezabala (EHBildu)
Alex Oñden (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)
Arrixu Marañon (PSE)

Aurka: 0

Abstentzia:0

ALDEKO irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, bertaratutako kideen gehiengo soilaren quorumarekin hartu beharko du erabakia.

PROPOSAMENA:

LEHENA.- Prozedura ireki eta ohiko izapidetze bidez, Zumaia Karmeldar Oinutsien komentua birgaitzeko egikaritze-proiektua exekutatzeko obra kontratatzeko espedientea onartzea eta lizitatzea.

BIGARRENA. Dagokion gastua onartzea aurrekontuko 1 0100.622.334.00.01 2022 eta 5 0100.622.334.00.01 2023 kontusailen kontura, eta hurrengo urteetako aurrekontuetan beharrezkoak diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartzea.

HIRUGARRENA. Loteetan ez esleitzea jasotzen duten Baldintza administratibo berezien agiria, baldintza teknikoaren agiria eta eranskinak onartzea.

LAUGARRENA. Lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, III. Eranskinean jasotzen duen edukiarekin.

BOSGARRENA. Kontratazio espedienteko agiriak kontratugilearen profilean argitaratzea, bereziki, baldintza administratiboaren agiria eta baldintza teknikoaren agiria.

SEIGARRENA. Kontratazio-mahaiko kideak izendatzea eta bere osaera kontratugilearen profilean argitaratzea:

- Lehendakaria: Gorka Arregi Gaztañaga, Hirigintzako arduraduna.
 - Mahaikidea: udaleko idazkaria, Ander Cestona Unanue, edo legez haren ordezkaria hartzen duena.
 - Mahaikidea: kontu-hartzailea, Nerea Azpillaga Etxeberria, edo legez haren ordezkaria hartzen duena.
 - Mahaikidea: Maider Unamuno Azcarate, eraikinetako teknikaria
- Idazkaria: Amaia Gonzalez, Administrazio orokorreko teknikaria.

Gaiaren azalpenak eman eta gero bozka ematen da, ondorengo emaitzarekin:

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)



Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: LEHENA.- Prozedura ireki eta ohiko izapidetze bidez, Zumaiako Karmeldar Oinutsien komentua birgaitzeko egikaritze-proiektua exekutatzeko obra kontratatzeko espedientea onartzen da eta lizitatzea.

BIGARRENA. Dagokion gastua onartzea aurrekontuko 1 0100.622.334.00.01 2022 eta 5 0100.622.334.00.01 2023 kontusailen kontura, eta hurrengo urteetako aurrekontuetan beharrezkoak diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartzea.

HIRUGARRENA. Loteetan ez esleitzea jasotzen duten Baldintza administratibo berezien agiria, baldintza teknikoen agiria eta eranskinak onartzea.

LAUGARRENA. Lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, III. Eranskinean jasotzen duen edukiarekin.

BOSGARRENA. Kontratazio espedienteko agiriak kontratugilearen profilean argitaratzea, bereziki, baldintza administratiboaren agiria eta baldintza teknikoen agiria.

SEIGARRENA. Kontratazio-mahaiko kideak izendatzea eta bere osaera kontratugilearen profilean argitaratzea:

- Lehendakaria: Gorka Arregi Gaztañaga, Hirigintzako arduraduna.

- Mahaikidea: udaleko idazkaria, Ander Cestona Unanue, edo legez haren ordezkaria hartzen duena.

- Mahaikidea: kontu-hartzailea, Nerea Azpillaga Etxeberria, edo legez haren ordezkaria hartzen duena.

- Mahaikidea: Maider Unamuno Azcarate, eraikinetako teknikaria

Idazkaria: Amaia Gonzalez, Administrazio orokorreko teknikaria.

4.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA.-

4.1.- IRIZPENA:

4.1.1.- EUSKARA IKASTAROAK EGITEAGATIK ETA ERROTULUAK EUSKARA JARTZEAGATIK DIRULAGUNTZEN OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA .

2022KO EKAINAREN 13KO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, EUSKARA SAILEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIEI BURUZKOA (EUSKALDUNTZEA ETA ERROTULUAK)

AURREKARIAK



- 1.- Urte asko dira Zumaia Udalak diru laguntzak ematen dituela euskara ikastaroak egiteagatik eta errotuluak euskaraz jartzeagatik.
- 2.- Azken urteotan ekainean argitaratu izan dira deialdiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- 3- Aurten hasita, diru laguntzen datu base nazionalean (BDNS plataforman) sartu behar dira deialdiak, eta horretarako aurrez oinarri bereziak argitaratu behar dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- 4.- Betebehar hori baliatuta, oinarriak eguneratu, osatu eta zehaztu egin dira

IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko martxoaren 21eko Euskara eta Informazio Batzordeak, honako boto hauekin:

Alde: 3 EH BILDU, 2 EAJ

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako **PROPOSAMEN HAU** egin da:

Lehena.- Ontzat ematea Euskara Sailaren diru laguntzen oinarri bereziak euskara ikastaroak egiteagatik eta errotuluak euskara jartzeagatik.

Bigarrena.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Gaia, azaldu eta gero zuzenean bozkatzera pasatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Lehena.- Ontzat ematen da Euskara Sailaren diru laguntzen oinarri bereziak euskara ikastaroak egiteagatik eta errotuluak euskara jartzeagatik.



Zumaia Udala

2022IAKU0006-A22/5629

Bigarrena.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

5.- GIZARTE ZERBITZUAK.-

5.1.- IRIZPENAK:

5.1.1.- ADINEKOENTZAKO UDALAREN OSTATU - ZERBITZUAREN TASA KALKULATZEKO MODUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2022KO EKAINAREN 14KO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN IRIZPENA, ADINEKOENTZAKO UDALAREN OSTATU- ZERBITZUAREN TASA KALKULATZEKO MODUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA.

AURREKARIAK

1.- Adinekoentzako udalaren ostatu- zerbitzuaren mota eta prezioak honako hauek izan dira gaur egun arte, ostatu bakoitzaren metrajearen arabera:

APART. ZBKIA.	MOTA	PREZIOA 2021 HILEAN
3,7,11,15, (4 plaza)	A (indibidualak) 41,55 m	333,50€
4,5,6,12,13,14 (6 plaza)	B (indibidualak) 43,30m	351,11€
2,8,10,16 (8 plaza)	C (bi pertsona) 54,65m	442,11€

2023. urtetik aurrera ostatuak bi motatan banatzea proposatzen da, ostatuan bizi direnen kopuruaren arabera:

MOTA	PREZIOA 2023 HILEKO	PREZIOA 2023 EGUNEKO
A (indibidualak)	341,05 €	12,00 €
B (bi pertsona)	442,11 €	15,00 €



Zumaia Udala

2022IAKU0006-A22/5629

2.- 2022ko maiatzaren 10eko Gizarte Zerbitzu Batzordean, Adinekoentzako Udalaren Ostatu-Zerbitzuaren tasa kalkulatzeko modua arautzen duen Araudia onartzeko proposamena aurkeztu zen.

IRZPENA

Ondorioz, 2022ko ekainaren 14ean, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 3 EH Bildu; 2 EAJ

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Hasierako onarpena ematea, Adinekoentzako Udalaren Ostatu-Zerbitzuaren Tasa kalkulatzeko modua arautzen duen Araudiari, eranskinean adierazten den testuaren arabera.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaaren arabera.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua, GAO-n argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Batzordean komentatu eta eztabaidatu eta gero bozka ematen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

1.- Hasierako onarpena ematen da, Adinekoentzako Udalaren Ostatu-Zerbitzuaren Tasa kalkulatzeko modua arautzen duen Araudiari, eranskinean adierazten den testuaren arabera.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaaren arabera.



3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua, GAO on argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

5.1.2.- ADINEKOENTZAKO UDALAREN OSTATU - ZERBITZUAREN ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2022KO EKAINAREN 14KO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO ADINEKOENTZAKO UDAL OSTATU ZERBITZUAREN ARAUDIA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEKO.

AURREKARIAK

1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak eragin nabarmena izan du gizarte-zerbitzuen esparruan.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema integratua antolatu eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko herritar guztien eskubide subjektiboa bermatzeko, sistema horretan sartzeko baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitzean sartzeko araututako eskakizun espezifikoaren esparruan.

Hala, 22. artikuluan, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa zehaztu du, besteak beste, adinekoentzako Ostatu Zerbitzua. Zerbitzu hura ematea udalen eskumena da.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzeko, aipatutako eskubide subjektiboa mugatu du. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan ezarritako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko baldintza, irizpide eta prozedurak arautu ditu.

Halaber, gizartearen egoera aldatu egin da; hala, adinekoen hazkunde demografiko progresiboa gertatu da, bizi-itxaropenak gora egitearekin batera, gure gizartean adin-piramidea aldatu delako. Aurrekoaz gain, babes emateko eragilea izateari dagokionez, familia barruko harremanetan aldaketa eman da eta gizarte-zerbitzuak ere garatu egin dira.

Lehentasunezkoa da herritarrek bizilekuan ahal den beste geratu nahi izatea, bizitza osoan izan duten erreferentziako gizarte-sareari eutsita, herritar horientzako laguntza-zerbitzuak kontuan hartzeko eta zehazteko, izan ere, haien mendekotasuna gero eta handiagoa da. Alde horretatik, ostatu-zerbitzuek egoitzetan eskaintzen direnen ordezkari aukera osatzen dutela esan daiteke, etxebizitzaren pareko izaerarekin.

Mendekotasun-egoeran edo horren arriskuan daudenei arreta emateko beharizan horrekin batera, gizarte-babesik gabe dauden adineko batzuek



Zumaia Udalak

2022IAKU0006-A22/5629

ordezko bizilekua eduki behar dute oinarrizko arretaren premiei eta arreta integralagoaren beharizan gero eta handiagoi erantzun ahal izateko.

Amaitzeko, aipatzekoa da araudiak errespetatu egin dituela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1teko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, 39/2015 Legearen) 129.1 artikuluan aipatutako printzipioak (premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia).

Araudia premiaren eta efikaziaren printzipioari egokituta egoteari dagokionez, lehen azaldu den bezala, haren onarpenak zerbitzua arau-esparru berrian kokatzeko beharrezkoan oinarri duela adierazi behar dugu, egungo errealitate sozialari erantzuteko moduan. Halaber, arau hau tresnarik egokien eta efikazena da helburu horiek lortuko direla bermatzeko.

Arau hori proportzionaltasun-printzipioarekin ere koherentea da; hala, araudia bitarteko beharrezko eta nahikoa da zerbitzu bera eta haren helburuak zehazten dituen Adinekoentzako Udal Ostatu Zerbitzua arautzeko. Hala, bere funtsezko alderdiak arautu ditu, hala nola zerbitzuetatik kanpo dauden prestazioak, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, zerbitzua erabiltzeko baldintzak eta horretan sartzeko prozedura, zerbitzua etetea eta azkentzea eta haren araubide ekonomikoa.

Bestalde, araudiak zerbitzuaren erregulazioa hobetu du, aurreikusteko moduko ziurtasuneko arau-esparru koherente, egonkor, integratu eta argia ezarrita; beraz, ez dago aplikatu beharrezko araubide juridikoarekiko inkoherentziarik edo kontraesanik eta, horrela, segurtasun juridikoaren printzipioa errespetatu da.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, beharrezko jarduerak egin dira herritarren benetako parte-hartzea bermatzeko araudia egitean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1teko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- 2022ko maiatzaren 10eko Gizarte Zerbitzu Batzordean, Zumaia Udal Adinekoentzako Udal Ostatu Zerbitzuaren Araudia aurkeztu zen.

IRZPENA

Ondorioz, 2022ko ekainaren 14ean, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 3 EH Bildu; 2 EAJ

Aurka:

Abstentzia:

ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa behar delarik, apirilaren 2ko



Zumaiako Udala

2022IAKU0006-A22/5629

7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Hasierako onarpena ematea, Zumaiako Adinekoentzako Udal Ostatu Zerbitzuaren Araudiari eranskinean adierazten den testuaren arabera.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaaren arabera.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Hau ere batzordean azaldu, landu ondoren bozkatzera pasatzen da:

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: **1.-** Hasierako onarpena ematen da, Zumaiako Adinekoentzako Udal Ostatu Zerbitzuaren Araudiari eranskinean adierazten den testuaren arabera.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaaren arabera.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

6.- PERTSONALA.-

6.1.- ZUMAIAKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN MODALITATE PRESENTZIALA ETA EZ-PRESENTZIALA BARNE HARTZEN DITUEN SISTEMA MISTO BATEN BIDEZ ZERBITZUA EMATEKO ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2022KO EKAINAREN 17KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN MODALITATE PRESENTZIALA ETA EZ-PRESENTZIALA BARNE HARTZEN DITUEN SISTEMA MISTO BATEN BIDEZ ZERBITZUA EMATEKO ARAUDIARI HASIERANO ONARPENA EMATEKO



AURREKARIAK

1.- Irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretuaren (Administrazio Publikoetako telelanaren eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideen arloko premiazko neurriei buruzkoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko) lehen artikulua bidez, 47 bis artikulua berri bat sartu zen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginean. Artikulu hori honela idatzita geratu da:

«47 bis artikulua. Telelana.

1. Urrutiko zerbitzuak emateko modalitatea da telelana, non lanpostuaren eskumen-edukia, betiere zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen badute, Administrazioaren bulegoetatik kanpo gara daitekeen, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

2. Zerbitzua telelanaren bidez ematea berariaz baimendu beharko da, eta bateragarria izango da modalitate presentzialarekin. Nolanahi ere, borondatezkoa eta itzulgarria izango da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Estatutu hau garatzeko ematen diren arauen arabera egingo da. Arau horiek negoziazio kolektiboaren xede izango dira dagokion eremuan, eta irizpide objektiboak jasoko dituzte zerbitzua emateko modalitate horretan sartzeko.

Telelanak lana hobeto antolatzen lagundu beharko du, helburuak identifikatuz eta horiek betetzen diren ebaluatuz.

3. Telelanaren bidez lan egiten duten langileek aurrez aurreko modalitatean lan egiten duten gainerako langileen betebeharrak eta eskubide berberak izango dituzte, indibidualak zein kolektiboak, lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudi aplikagarria barne, zerbitzua aurrez aurre emateari dagozkionak izan ezik.

4. Administrazioak modalitate horretan lan egiten duten pertsonen beren jarduerarako behar dituzten baliabide teknologikoak emango dizkie eta mantenduko dizkie.

5. Telelanaren arloan, estatutu honetan eta berau garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira herri-administrazioetako lan-kontratuko langileak.»

Halaber, aipatu Errege Lege Dekretuak honako hau xedatzen du:

«telelanari buruzko araudia errege lege-dekretu honetan aurreikusitakora egokitu behar duten administrazio publikoek sei hilabeteko epea izango dute, hura indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.»

2.- Horrez gain, kontuan izan behar da baita, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutakoak, 14. artikuluan ezartzen duela enplegatu publikoen eskubide indibidualak dela bizitza pertsonala, familiarra eta laborala bateratzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea. Zumaia Udalean badaude jada xede hori duten hainbat neurri, baina orain helburu hori lortzeko beste aukera bat planteatu nahi da.

Zerbitzuak emateko modalitate ez-presentziala da telelanaren sistema, non enplegatu publikoak etxetik edo lantokia ez den beste lekuren batetik, bere ohiko lan zentroa ez dena, betetzen baititu lanpostuko eginkizunak, betiere informazio-teknologiek



ahalbidetzen badute, eta lan arriskuen prebentzioa, gizarte segurantzaren eta datuen babes eta pribatutasuna direla-eta ezarri beharreko baldintzak bermatuta.

Teledan onura nabarmena ekar diezake adingabeak, zaintzak behar dituzten adineko pertsonak edo desgaitasun nahiz gaixotasun larriren bat duten senitartekoak beren kargura dituzten enplegatuei. Izan ere, eguneko lan saio osoa etxetik egin daitekeenez, errazagoa da bizitza pertsonala, familiarra eta laborala kontziliatzea.

3.- Horrez gain, arrazoi horiek alde batera utzi gabe, kontuan izan behar da, era berean, lan inguruko kontzeptu eboluzionatu eta gaurkoa dela bertaratu gabeko lanaren irudia, eta horretan lehenetsia ematen zaiola enplegatu publiko bakoitzaren eginkizunak modu arduratsuan bideratzeari eta helburu korporatiboak gauzatzeko egiten den ekarpenari, lanpostuan egote hutsa ziurtatzeko edozein neurriren gaitetik. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garapenak aukera ematen du, inolako zalantzarik gabe, zerbitzua emateko orain arte ezagutzen direnak ez bezalako beste modalitate batzuk lantzeko.

4.- Horren harira, ez da ahaztu behar, Herri Administrazioa den aldetik, Zumaiako Udalak betebeharrak berezia duela norberaren bizitza, familia eta lan bizitza uztar daitezkeen bermatzeko edozein neurri sustatzeko orduan. Gainera, neurri horiek hartzen badira, azken batean, produktibitate maila handiagoa lortuko da lanean enplegatu publikoak motibatutakoak egongo direlako eta, azkenean, ekarpen handiagoa egingo zaio interes orokorrari.

Hori dela eta, jakiterik badago urruneko lana edo telelana bezalako ekimenek lagunduko dutela Administrazioa modernizatzen eta herritarrei kalitate handiagoko zerbitzuak eskaintzen, erakunderako ezin konta ahala abantaila baitakartza aukera horrek, haren zerbitzura ari diren langileen eraginkortasuna handitzearekin hasi eta langile horiek lanera doazen bitartean izan ditzaketen laneko arriskuen murrizketarekin buka.

5.- Hala bada, zerbitzua bertaratu gabe emateko irudi horretarako proposatzen den erregulazioa Teledanari buruzko Esparru Akordio Europarrak zehaztutako oinarriko printzipioetan bermatzen da (Europako Batzordearen ekimenez, akordio hori 2002ko uztailaren 16an sinatu zuten Bruselan esparru europarreko gizarte solaskide nagusiek), eta Zumaiako Udaleko langileen ordezkariekin negoziatu eta adostu da, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bateginaren Legearen 37.1 artikulua xedatu bezala, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

Hori guztia da Zumaiako Udalak aukera honekin bilatzen duen helburua.

Hala ere, kontuan hartu behar da telelana ez dela soilik lantokira bertaratu behar ez izatea, lan egiteko moduaren antolaketa aldatu beharra ere ekartzen baitu. Beraz, lan modalitate hau ezingo da aplikatu Zumaiako Udaleko lanpostu guztietan. Horregatik, ezinbestekoa izan da baloratu beharra zein lanpostu egokitu daitezkeen antolaketa eskema berri honetara.

6.- Hori kontuan izanik hain zuzen ere, Zumaiako Udalean 2020an proba pilotu bat sustatu zen, eta behin proba pilotua amaituta eta prozesua ebaluatuta, balantzea oso aldekoa izan da, bai parte hartu duten langileen aldetik, bai haien arduradunen aldetik ere. Horregatik, erabaki da lan egiteko modu hau zabaltzea eta modu egonkorrean ezartzea.

Nabarmendu behar da telelanaren proba pilotua partaidetza prozesu baten bidez egin zela. Zehazki, bertan parte hartu zuten langileekin, langileen ordezkariekin, parte hartu zuten langileen sailtako arduradunekin eta alderdi politikoekin partekatutako prozesua izan zen.

Arestian esandako guztiagatik, langileen ordezkariekin negoziatu ostean



IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko ekainaren 17ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko botoak: 3 EH Bildu (Iñaki Ostolaza,
Asier Arakistain,
Arantxa Gajate)
1 EAJ-PNV (Iker Mardaras)
1 ES-SV (Arritxu Marañon)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Zumaia udaleko enplegatutako publikoek modalitate presentziala eta ez-presentziala barne hartzen dituen sistema misto baten bidez zerbitzua emateko arauari hasierak onarpena emateko

2.- Arautegiaren hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Pertsonaleko batzordean landu eta adostasun batera iritsi ondoren gaia bozkatzera pasatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia udaleko enplegatutako publikoek modalitate presentziala eta ez-presentziala barne hartzen dituen sistema misto baten bidez zerbitzua emateko arauari hasierak onarpena ematen da.

2.- Arautegiaren hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Ezohiko plenoa denez, ez dago eskari-galderik, beraz bukatzen dugu gaurko ezohiko plenoa hurrengo hilera arte



Zumaiako Udala

Eskerrik asko,

2022IAKU0006-A22/5629

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita bi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria